

Urriak 17a, Pobreziaren kontrako Nazioarteko Eguna

Euskadiko gazteen % 8,1 pobrezia-egoeran daude

Urriaren 17an **Pobreziaren kontrako Nazioarteko Eguna** ospatzen dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) Euskadin pobrezia-egoeran dauden gazteei buruzko datu batzuk azalduko ditu.


Datuok Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak aldiari-aldiari burutzen duen Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) izeneko ikerketatik datoz.

2016an eginiko azken inkestari erreparatuz gero, esan dezakegu Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 8,1 pobrezia errearen egoeran daudela. Pobrezia errearen kontuan hartzen ditu oinarritzko premiei aurre egiteko estaldura nahikoa ez izateko arrisku-egoera guztiak, biztanleen eguneroko bizimoduan ongizate-maila minimoa lortzeko egoki orekatzen ez direnean.

Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoa (edo, beste modu batean esanda, gazteen pobrezia errearen tasa) nahiko egonkor mantendu da azken urteotan, baina nabarmen handitu da 2000 eta 2008 urteen arteko aldiarekin alderatuta.

Sexuaren arabera analisiak zera adierazten digu, emakume gazteek gizon gazteek baino pobrezia-egoera gehiago jasaten dituztela.

Pobrezia errearen egoeran dauden Euskadiko 16 eta 29 urte bitarteko gazteen portzentajearen bilakaera, sexuaren arabera



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak egiten duen Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuak oinarri hartuta

Gainera 16 eta 29 urte bitarteko gazteen pobrezia errearen tasa Euskadiko biztanleria osoarena (2016an % 5,7) baino handiagoa da.

Adierazle hau Gazteen Euskal Behatokiaren webgunean pobrezia eta gizarte-bazterketari buruz kontsulta daitezkeenetarikoa bat baino ez da. Behatokiaren [estatistiketan](#) sartuz gero, **Lana eta egoera ekonomikoari buruzko atalean** aurkituko dituzu adierazle hau eta beste gehiago, "**Pobrezia eta gizarte-bazterketako arriskua**" izeneko azpi-atalean, hain zuzen ere.